

betza nahitaez kendu beharreko ondasun eta eskubideak lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratzeko, jabetza nahitaez kentzeak honako hauek hartzen dituen: exekuzio-unitate osoak, lurraldearen hirigintza-antolaketari dagozkion sistema orokorrak edo antolaketaren elementuren bat eta lurzoru urbanoan egin beharreko egintza isolatuak. Goian aipatutako lege horrek 26.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, orduko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburuari zegoen horretarako proposamena Jaurlearitzaren Kontseiluan aurkeztea.

Ondorioz, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen sailburuaren proposamenez eta Jaurlearitzaren Kontseiluan 2003ko uztailaren 29an egindako bilkuran aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*— Jabetza Nahitaez Kentzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26.ean xedatutakoari jarraituz, «501.01 eta 501.02 exekuzio-unitateak (gasaren fabrika)» egiteko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideak Bilboko Udalak jabetza nahitaez kentzearen ondorioetarako lehenbailehen hartu beharrekoak direla deklaratzeko. Berariaz hasitako espedientean jasotako zerrendan daude zehaztu eta banakatuta ondasun eta eskubide horiek.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 29an.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Lurralde Antolamendu  
eta Ingurumen sailburua,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

**OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA  
GARRAIO  
ETA HERRI LAN SAILA**

**Zk-4773**

196/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koa, batetik, «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietate anonimoren akzioak erostea baimentzeari buruzkoa eta, bestetik, aipatu sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sozietate Publiko izaera hartzeari buruzkoa.

Gure kostaldea zuzenean —ontzigintza, konponketak, ontzi-ekipamenduak eta -hornigaiak—, zein era in-

bierno Vasco acordar la declaración de urgencia de la ocupación de los bienes y derechos afectados por la aplicación de la expropiación forzosa a unidades de ejecución completas, sistemas generales de la ordenación urbanística del territorio o a la de alguno de sus elementos o para la realización de actuaciones aisladas en suelo urbano, correspondiendo al Consejero del entonces Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente, de acuerdo con lo establecido en el artículo 26.2 del mismo texto legal, elevar al Consejo de Gobierno la correspondiente propuesta.

En su virtud a propuesta del Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su reunión del día 29 de julio de 2003.

DISPONGO:

*Artículo único.*— De conformidad con lo dispuesto en los artículos 52 de la Ley de Expropiación Forzosa y 26 de la Ley de Ordenación del Territorio del País Vasco, se declara urgente la ocupación por el Ayuntamiento de Bilbao, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos concretados e individualizados en la relación obrante en el expediente instruido al efecto y necesarios para la «Ejecución de las Unidades de Ejecución 501.01 y 501.02, Fábrica del Gas».

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2003.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Ordenación del Territorio y Medio Ambiente,  
SABIN INTXAURRAGA MENDIBIL.

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA  
DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES  
Y OBRAS PÚBLICAS**

**Nº-4773**

DECRETO 196/2003, de 29 de julio, de autorización de adquisición de acciones de la sociedad anónima «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» y la adquisición de la condición de sociedad pública de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Sociedad «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» se constituyó el 3 de noviembre de 1994, con participación pa-

duzitian —turismoa— gara dadin, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak gure kostaldea nabigazio- eta kirol-azpiegitez hornitzeko programa bat sustatzen du. Bada, programa horren barruan eta EA Eren eta Zumaiako Udalaren partaidetza paritarioarekin eratu zen «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietatea, 1994ko azaroaren 3an.

Administrazio Eraberritzeko Bulegoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari «Euskadiko Kirol Portua, S.A.» sortu eta sozietateko partaidetzak erosteko baimena eman zion Dekretuak eragiten zituen antolakuntza aldeei buruzko txostena egiterakoan adierazi zuen beharrezkoa zela kirol-portuak kudeatzeko zeuden sozietateek, hau da, Getxokoak eta Zumaiakoak, publiko bihurtzea, kudeaketako irizpideak bateratzearen.

Horretarako, Zumaiako Udaltzaren, 2002ko abenduaren 17an izandako bilkuran erabaki zuen alkatea ahalmentzea Zumaiako Udalak, bazkide sortzaile gisa, Zumaiako Kirol Portua sozietate anonimoan harpidetuta eta jaulkita zituen ehun akzio —horien balio nominala sei ehun eta bat euro eta bat zentimokoa (601,01) da— Eusko Jaurlaritzari, sozietate horren %50aren jabe den bazkideari, saltzeko; orobat, esku-duntzarik zabalenak eman zaizkio alkateari salmenta horretarako beharrezkoak izan daitezkeen dokumentu publiko zein pribatu guztiak idatzi eta formalizatzeko.

Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeak 44.1 artikuluan xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioak edozein eratako sozietateak sortzeko eta horietako partaidetzak erosteko baimena dekretu baten bidez eman beharko da, Ekonomia eta Ogasun sailburuak eta enpresa menpe izango duen saileko sailburuak elkarrekin proposatuta; bestetik, diruaren nahiz jabari pribatuko ondasunen ekarpena egitea adostu daiteke, horien balioa edozein dela ere.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogantza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen 1/1997 Legegintzako Dekretuak 20.3 artikuluan ezartzen du eraturako sozietateetako partaide nagusi bilakatu ahal izateko, Jaurlaritzaren dekretua beharko dela.

Horiek horrela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta Garraio eta Herri Lan sailburuaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko uztailaren 29an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe,

XEDATU DUT:

**1. artikulua.**— Zumaiako Udalarari «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietatearen akzioak erosteko baimena ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari. Horretarako, sei ehun eta bat euro eta bat zenti-

ritaria de la C.A.P.V. y del Ayuntamiento de Zumaia, dentro de un programa impulsado por la Dirección de Puertos y Asuntos Marítimos cuyo objetivo es dotar a nuestra costa de una infraestructura náutico-deportiva que permita su desarrollo ya sea de forma directa (construcción naval, reparaciones, equipamientos y suministros navales, etc.) como inducida (turismo).

La Oficina para la Modernización Administrativa, al informar sobre los aspectos organizativos en los que incidía el Decreto de autorización a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la creación y adquisición de participaciones en la sociedad anónima «Euskadiko Kirol Portua», informó sobre la necesidad de que las sociedades existentes para la gestión de puertos deportivos, esto es Getxo y Zumaia, se hicieran públicas a fin de unificar criterios de gestión.

A este respecto, el Pleno del Ayuntamiento de Zumaia, en sesión celebrada el día 17 de diciembre de 2002 acordó facultar al Alcalde para proceder a la venta de cien acciones por un valor nominal de seiscientos uno con cero uno (601,01) euros, de las acciones suscritas y desembolsadas por el Ayuntamiento de Zumaia como socio fundador de la sociedad anónima Zumaiako Kirol Portua, al Gobierno Vasco, socio al 50% en la citada sociedad, con las más amplias facultades para la redacción y formalización de cuantos documentos públicos y privados fueran necesarios en orden a la venta.

El artículo 44.1, de la Ley 14/1983, del 27 de Julio, de Patrimonio de Euskadi, dispone que la creación de Sociedades de cualquier clase, así como la adquisición de participaciones en las mismas por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, será autorizada por Decreto del Gobierno a propuesta conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento del que la empresa vaya a depender administrativamente, pudiendo acordar la aportación de metálico y bienes de dominio privado, cualquiera que sea su valor.

Por su parte, el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, en su artículo 20.3 establece que la adquisición de la condición de partícipe mayoritario en las sociedades constituidas precisará de Decreto del Gobierno.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública y del Consejero de Transportes y Obras Públicas, previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión celebrada el día 29 de julio de 2003,

DISPONGO:

**Artículo 1.**— Autorizar a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi la compra de acciones de la sociedad «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» al Ayuntamiento de Zumaia, con una aportación por parte de

moko ekarpena egingo du, hau da, Zumaiako Udalak sozietatearen kapitalean daukan partaidetzaren %1.

Akzioak erosi ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatearen kapitalean daukan partaidetzaren portzentajea %51 izango da.

Baimena ematen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak harpidetzen dituen akzioen nominala guztiz ordaintzeko akzioak erosten diren unean.

**2. artikulua.**– Akzioak erostearen ondorioz, «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sozietate publiko izaera hartzea baimentzea.

**3. artikulua.**– Baimena ematea Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ondare eta Kontratazio zuzendariari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren izenean, akzioen zenbatekoa harpidetu eta estaltzeko beharrezkoak diren ordainketak eta ekarpenak egiteko, baita aurreko artikuluetan xedatutakoa betetzeko beharrezkoak diren gainontzeko jarduketetarako ere.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da 222/2000 Dekretua, uztailaren 29koa, batetik, «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» sozietate anonimoaren akzioak erostea baimentzeari buruzkoa eta, bestetik, aipatu sozietateak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Sozietate Publiko izaera hartzeari buruzkoa.

#### AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen denetik harako ondorioak izango ditu.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 29an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Garraio eta Herri Lan sailburua,  
ÁLVARO AMANN RABANERA.

aquella de hasta seiscientos uno con cero uno (601,01) euros, equivalente al 1% de la participación del Ayuntamiento de Zumaia en el capital de la sociedad.

Una vez efectuada la compra de acciones, el porcentaje de participación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el capital de la sociedad alcanzará hasta el 51%.

Se autoriza la realización del desembolso íntegro del nominal correspondiente a las acciones que se suscriban por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el momento de la compra de las mismas.

**Artículo 2.**– Autorizar la adquisición de la condición de sociedad pública de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco de «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» como consecuencia de la compra de las acciones.

**Artículo 3.**– Autorizar al Director de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Administración Pública, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para materializar los desembolsos y aportaciones necesarias para la suscripción y cobertura del importe de las acciones correspondientes, y para el ejercicio de las demás actuaciones necesarias para el cumplimiento de lo dispuesto en el artículo anterior.

#### DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 222/2000, de 7 de noviembre, de autorización de participación en la ampliación de capital de la Sociedad Anónima «Zumaiako Kirol Portua, S.A.» y la adquisición de la condición de Sociedad Pública de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

#### DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos desde su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2003.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,  
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,  
ÁLVARO AMANN RABANERA.